

Ebazpena, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin lankidetzan enplegu-zentroen jarduera garatzeko diru-laguntzen 2017. urteko deialdiaren babespean aurkeztutako hainbat eskaera ezetsitzat jotzen dituen.

Espedienteak: 2017/CEMP/000018, 2017/CEMP/000023, 2017/CEMP/000033 , 2017/CEMP/000039.

IKUSI dira goian aipatutako erreferentziadun espedienteetan aurkeztutako eskariak, eta kontuan hartu dira honako

GERTAERAK

Lehena.- 2017-11-06an, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak bere webgunean (www.lanbide.euskadi.eus) argitaratu zuen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin lankidetzan enplegu-zentroen jarduera garatzeko diru-laguntzen 2017. urteko deialdiaren babespean aurkeztu ziren eskarien artean osorik beteta ez zeuden edo nahitaezko dokumentazioren bat falta zuten horien zerrenda, 10 egun balioduneko epean zuzen zitezen, aipatu zerrenda webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Halaber, hala egin ezean beren eskarian atzera egin zutela ulertuko zela jakinarazi zen, deialdiaren 7.4. artikuluaaren arabera.

Bigarrena.- Epea amaitu da, eta hainbat erakundek ez dute eskatutako dokumentazioa aurkeztu.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehena.- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren eskumena da espediente hau ebaztea, maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretuak (Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Estatutuak onartzen dituenak) 10.2.j artikuluan ezarritakoaren arabera.

Bigarrena.- Urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoetako Administrazio Prozedura Erkidearenak) 68.1. artikuluan ezarritakoaren arabera, interesdunak administrazio-prozedura batean ez badu hutsa zuzentzen edo ez baditu eskatu zaizkion nahitaezko agiriak aurkeztu, eskarian atzera egin duela ulertuko da, 21. artikuluan aurreikusitakoaren arabera emango den ebazpena ezarri ondoren.

Horrenbestez,

IKUSITA aipatu lege-xedapenak eta orokorrean aplikatu beharreko gainerakoak, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak, dagozkion eskumenez baliatuz, honako hau

EBAZTEN DU:

Lehena.- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin lankidetzan enplegu-zentroen jarduera garatzeko diru-laguntzen 2017. urteko deialdiaren babespean jarraian zerrendatzen diren erakundeek aurkeztu dituzten eskariek atzera egin dutela aitortzea, eta, beraz, eskari horiek prozeduran duten partaidetza amaitutzat ematea:

- Zubigune Fundazioa
Espediente Zkia.: 2017/CEMP/000018
- Sociedad de Fomento de San Sebastian
Espediente Zkia.: 2017/CEMP/000023
- Nazaret Fundazioa
Espediente Zkia.:2017/CEMP/000033
- Hegala S.Coop
Espediente Zkia.: 2017/CEMP/000039

Bigarrena.- Ebazpen hau interesdunei jakinaraztea, eta, horretarako, Lanbideren webgunean (www.lanbide.euskadi.eus) argitaratzea. Halaber, berariaz jakinaraziko da ebazpen horrek amaiera ematen diola administrazio-bideari, eta berorren aurka hautazko berraztertze errekurtsoa jarri ahalko dela Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren aurrean, hilabeteko epean, hura jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, edo administrazioarekiko auzien errekurtsoa jarri ahalko dela zuzenean Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, hura jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko abenduaren 5a



BORJA BELANDIERADEJAS
Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia